

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBA
EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (A eredu)
2013/2014 IKASTURTEA

Bi aukeretatik bat hartu behar duzu (A edo B)

A AUKERA

Liburutegiak, garai berrietara egokitzeko premian

Berrikuntza teknologikoak direla-eta, orain arte ezagutu ditugun liburutegiek behar berrietara egokitzen hasi behar izan dute. Paperezko liburuak apaletan geratzen ari dira eta irakurleek formatu digitalak aukeratzen dituzte. Egoera horretan, zer funtzio daukate gaur egun liburutegiek? Zer bide hartu behar dute gizarteari orain arte emandako zerbitzua ematen jarraitzeko?

Gaur egun era askotako liburutegiak daude: foru- eta udal-liburutegiak, kultur etxeetakoak eta abar. Guztiek ere sekulako erronka daukate aurrez aurre: gizartearen abiadura aldatuz joatea eta erabiltzaileen beharrak asetzea.

Teknologia berrien eraginez, gizartea aldatzen ari da eta liburutegiek ere aldatu egin behar izan dute, erabiltzaileei zerbitzua ematen jarraitzeko. Informazioa, liburuak eta edukiak euskarri digitaletan eskuratzen ditugunez gero, batek baino gehiagok pentsatuko du liburutegiak zaharkituta eta funtzio praktikorik gabe geratu direla.

Erabiltzaileen ohiturei begiratzen badiegu, ordea, paperetik digitalera doan jauzia pixkanaka ari da gertatzen, eta badirudi oraingoz luze jarraituko dutela batak bestearen ondoan, irakurleen beharrak asetzen.

Atzerriko ereduak aztertu ditu Arantxa Urkia liburuzain eta ikerlariak, eta esan digu sekula baino garrantzitsuagoak direla gaur egun liburutegiak, «digitalizazioaren garaian ere betiko zerbitzuak ematen jarraituko dugu: irakurketa publikoa, kontsulta, mailegua, bizitza osoko trebakuntza, irakurketa txikitik sustatzea... Baina hori dena Interneten abantaila guztiekin, liburuak maileguan etxetik hartzea, adibidez, tabletetan irakurtzeko».

Internetek aldaketa asko ekarri ditu, eta profesional hauen lana saretik etorritako informazioa antolatzea izango da, erabiltzaileei zerbitzu hobea emateko. «Liburuzainok edukiak eskaini behar ditugu. Interneten informazio ikaragarria dago, eta gero eta gehiago bitartekari izaten jarraituko dugu, jendeak gaur egun ez baitauka ezertarako astirik; gure langileen profesionaltasunari esker, kalitatezko informazioa emango dugu, adibidez, gai baten inguruko liburu onak zer webgunetan dauden, informazioa non bilatu...».

Garai digitalean ondarea gordetzeko leku izaten ere jarraituko dute liburutegiek: bai paperean jasotako edukia, bai digitala:

«Liburutegi ereduak aldatzen ari da; gero eta liburu gutxiago ikusiko ditugu, baina gero eta pantaila gehiago, nonahi, liburutegian integratuta», erantsi digu Arantxak. «Gure eraikinak behar-beharrezkoak dira, baina ez orain arte ezagutu ditugunak bezalakoak», gaineratu du.

Ritxi Lizartza, *Ikasbil*

GALDERAK (OHARRA: Parentesi artean dagoen zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du.)

- 1.- Aditzak iraganean jarri: aukeratzen dituzte (3), daukate (3), daude (5), doan (12), esan digu (15). (1 puntu)
- 2.- Testuingurua kontuan hartuz hitz hauen sinonimoak eman: geratzen (2), sekula (15), asko (20), astirik (23), leku (26). (1 puntu)
- 3.- Berridatzi esaldi hauek (1 puntu):
 - orain arte ezagutu ditugun liburutegiek (1). (...-tako)
 - edukiak euskarri digitaletan eskuratzen ditugunez gero (9-10). (bait-...)
 - Erabiltzaileen ohiturei begiratzen badiegu (12). (...-z gero)
 - jendeak gaur egun ez baitauka ezertarako astirik (22-23). (...-lako)
- 4.- Testuaren ulermena. Liburutegiak zaharkituta gelditu al dira? Zergatik? (1 puntu)
- 5.- Testuaren ulermena. Liburutegiak nola doaz egokitzen gaurko gizartera? (1 puntu)
- 6.- Testuaren ulermena. Nolako zerbitzuak eskaintzen dituzte eta eskainiko dute liburutegiek? (1 puntu)
- 7.- Idatzi testuari edota gaiari buruz gutxienez 150 hitz. (4 puntu)

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBA
EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (A eredua)
2013/2014 IKASTURTEA

Bi aukeretatik bat hartu behar duzu (A edo B)

B AUKERA

Bidaiatzeko modu berrien bila

Krisiak ohitura asko aldatzera behartu ditu familia euskaldunak: etxeko gastuak antolatzeke modua, kontsumo-ohiturak, soldatak kudeatzeko era... Guztia aldatu da. Eguneroko gastuetarako diru-kopurua murriztu egin dugu. Horregatik, askok eta askok euren oporraldia beste era batera antolatzeari ekin diote.

Horren lekuko da Miren Alkorta. Berak bidaiaria-agentzia batean egiten du lan, eta krisia hasi zenetik oporrak egiteko modua asko aldatu dela esan digu: "Oporrak garrantzitsuak dira guretzat, oporraldiari ez diogu uko egin nahi, baina orain urtean hiru aldiz atera ordez, oporraldi bakarra egiten dute familiek... Edo lehen hamar eguneko egonaldia egiten zuten askok; orain astebetekoak saltzen ditugu gehien".

Bestalde, prezioak mantendu egin direla uste du, baina, krisiaren aurretik ez bezala, oporrak hilabete batzuk lehenago hartzeko ohitura zabaldu da, "beherapen handiak izaten direlako". Gazteen ohiturak ere aldatu egin dira eta orain bidaiaria egiteko txartelak bakarrik erosten dituzte askotan. "Nahi duten lekura ailegatu eta, dirua aurrezteko, han bilatzen dute non lo egin. Lehen dena lotuta eramaten zuten hemendik".

Baina badira merke bidaiatu ahal izateko beste modu batzuk. Internetek ateak ireki dizkie diru asko gastatu nahi ez dutenei. Ekimen hauek berriak ez izan arren, krisia dela medio, gero eta jende gehiagok jotzen du aukera horietara. Horietako bat etxea trukatzeko da; horrela, oporraldia beste batzuen etxean igarotzen dugu, haiek gurean igarotzen duten bitartean.

Merkeagoa da eta, horrez gain, ohiko turismoa gustatzen ez zaionarentzat egokia da, bisitatzen den leku horretako biztanle bat gehiago delako. Etxebizitzako jabeen ingurukoekin ere harremanetan jartzen dira askotan bidaiariak eta, haiei esker, ingurua, bertako kultura, ohiturak... ezagutzeko aukera daukate.

Beste aukera bat gure ibilbide bera egiteko asmoa duten bidaiariekin autoa partekatzea da, bidaiaria merkeagoa izateko. Oso erraza da. Gidariak bere ibilbidearen berri ematen du Interneten. Buruan daukagun bidaiarekin bat baldin badator, berarekin harremanetan jarri eta elkarrekin egin dezakegu bidaiaria. Aukera aproposa gazte-jendearentzat.

Aukera horiek ez dira bakarrak, baina argi erakusten dute posible dela merke bidaiatzea.

Noelia Lataburu, *Ikasbil*

GALDERAK (OHARRA: Parentesi artean dagoen zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du.)

- 1.- Aditzak iraganean jarri: ekin diote (3), esan digu (5), erosten dituzte (10), daukate (19), badator (22). (1 puntu)
- 2.- Testuingurua kontuan hartuz hitz hauen sinonimoak eman: asko (1), modua (1), murriztu (3), atera (6), jarri (22). (1 puntu)
- 3.- Berridatzi esaldi hauek (1 puntu):
 - krisia hasi zenetik (4). (_____ ...-z geroztik)
 - beherapen handiak izaten direlako (9). (_____ bait-...)
 - Ekimen hauek berriak ez izan arren (14). (Nahiz eta _____)
 - Buruan daukagun bidaiarekin bat baldin badator (21-22). (_____ ...-z gero)
- 4.- Testuaren ulermena. Zer aldatu da krisiaz geroztik? (1 puntu)
- 5.- Testuaren ulermena. Zein aldaketa izan dira oporrak antolatzeke moduan? (1 puntu)
- 6.- Testuaren ulermena. Nola bidaiatu daiteke modu merkean? (1 puntu)
- 7.- Idatzi testuari edota gaiari buruz gutxienez 150 hitz. (4 puntu)

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBA
2013-14 IKASTURTEA

EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA: "A" EREDUA

Zuzentzeko, ebaluatzeko eta kalifikatzeko irizpideak

A. Azterketaren zatiak eta puntuazioaren banaketa

- 1.- Gramatika galderak → 3 puntu
- 2.- Ulermen galderak → 3 puntu
- 3.- Idazlana → 4 puntu

B. Edukiak eta galdera motak

1.- "*Gramatika galderak*" zatian bi edo hiru galdera izanen dira eta orotara 3 puntu balioko ditu. Honako arlo hauetaz galde daiteke:

1.1.- *Sinonimoak*. Ikasleak testu horretan bertan txertatzeko moduko kide berdintsua eman beharko da.

1.2.- *Erorpen atzizkiak*. Ereduko eratorpen atzizkia aintzat hartuz, atzizki hori bera duten hitz berriak eman beharko dira.

1.3.- *Berridazketak*. Aldaketa morfosintaktikoak egin behar dira; ez da ontzat hartuko hiztegi mailako aldaketak egitea. Beti ere, testuko ereduaren adierakidea izan behar du. Hitz gakoa emanen da.

1.4.- *Aditzak*. Aditzaren aldia-aldaketa eskatuko da, orainetik iraganera igarotzea edo alderantziz.

2.- "*Ulermen galderak*" zatian bi edo hiru galdera izanen dira, orotara 3 puntu balio duelarik.

Bi motako ulermen galderak izan daitezke: zehatzak eta orokorrakoak. Galdera zehatzak testuari buruzko galdera zuzenak izanen dira, ikasleak informazioa testuan bertan bilatu eta emateko. Edo galdera orokorrakoak ere izan daitezke ikasleak ulermen orokorra lortu duen jakiteko helburuarekin: laburpen bat egitea (kasu honetan 50 bat hitzekoa), gaia antzematea eta azaltzea bi edo hiru lerrotan, testuko ideia nagusiak ematea 4/5 lerrotan, testu osoan zehar informazioa bilatzea...

3.- "*Idazlana*" zatiak 4 puntu balioko ditu eta testuko gaiari buruz edo gaiak iradokitzen duenari buruz gutxienez 150 hitzeko testua idatzi beharko da.

C. Zuzentzeko eta kalifikatzeko irizpideak

Azterketak —aukera zein baita ere— hiru sail edo zati nagusi izanen ditu: gramatikarena, idatziaren ulermenarena eta idazmenarena.

1.- “Gramatika galderak” sailean bi edo hiru galdera izanen dira eta orotara 3 puntu balioko ditu. Honako arlo hauek hartuko dira aintzat: sinonimoetan, testuan txertatzeko moduko kide berdintsua eman den; eratorpenari dagokion arloan, ematen diren hitz atzizkidunak zuzenak diren edo ez; berridazketetan, aldaketa morfosintaktikoak egin behar dira (ez da ontzat hartuko hiztegi mailako aldaketak egitea) testuko ereduaren adierakidea eman; eta aditzetan, aldiaren aldaketa zuzen egina dagoen begiratuko da. Galdera bakoitzean 4/5 item izanen dira, eta item bakoitzak —bere osotasunean— ongi egon behar du 0,25/0,2 kontatzeko.

2.- “Ulermen galderak” sailean bi edo hiru galdera izanen dira, orotara 3 puntu balio duelarik.

Bi motako ulermen galderak izan daitezke: zehatzak eta orokorrak. Lehenbizikoak testuari buruzko galdera zehatzak, zuzenak, izanen direnez, informazioa bilatu eta ongi emana dagoen begiratuko da. Hauetan, jakina, kontuan hartuko da erantzun horiek zuzen dauden, hau da, eskatutakoari lotzen zaion eta informazioa egoki eman den. Galdera orokorragoetan aintzat hartuko da ikasleak emandako erantzuna egokia eta zuzena den, hots, testuaren edo testu-zatien edukia, oro har, ulertu duen. Orobat, kontuan hartuko da ikasleak eman dituen erantzun horiek hizkuntzaren aldetik ongi taxutuak dauden.

3.- “Idazlana” sailak 4 puntu balioko ditu eta testuko gaiari buruz edo gaiak iradokitzen duenari buruz gutxienez 150 hitzeko testua idatzi beharko du ikasleak.

Gutxieneko hitz kopurua eman behar da. Horretaz gain, sail honetan bi alderdi edukiko dira kontuan: ematen den gaia ikasleak nola garatzen duen eta erabiltzen duen hizkuntza nolakoa den. Lehen alderdian hainbat erreferentzi puntu izanen dira zuzentzeko eta ebaluatzeko garaian: idazlanaren koherentzia, egitura, antolaketa, argudioen heldutasuna, gaiarekiko lotura, sormena, originaltasuna, jakintza entziklopedikoen erabilera, beste gaiarekiko lotura, e.a. Hizkuntzaren alderdiari dagokionez, berriz, beste hauek hartuko dira aintzat: idatzitako testuaren egokitasuna, kohesioa, zuzentasun gramatikala, ortografia, estiloa, hiztegiaren aberastasuna, e.a.

Baina kontuan hartu behar da, idazlanean bereziki zuzendu eta ebaluatuko dena idazlanaren kohesioa eta zuzentasun gramatikala izanen dela.